## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 3344

AGINDUA, 1996ko ekainaren 20koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, bilketarako betearazte-epealdian erabiliko diren ereduei buruzkoa.

Euskal Autonomi Elkarteko Ogasuntza Nagusiaren kreditu eta eskubideak betearazte epealdian biltzeko jardunbideetan, 1994ko apirilaren 20ko Aginduz onartutako inprimaki-ereduak erabiltzen dira.

Xehetasunak bidaltzeko jardunbide informatikoak arian arian ezartzeak bidezko egiten du eredu horien ordez sistema informatikoz sortutako agiriak jartzea.

Horiek horrela, Euskal Herriko Diruzaingo Nagusiaren erakundeari buruzko apirilaren 19ko 99/1982 Dekretuko gehigarrizko xedapenetatik lehenengoan ezarritako ahalmenaren babesean, honako hau

ERABAKI DUT:

*1. atala.*– Bilketarako betearazte epealdiaren barruan eman daitezen administrazio ekintzak Finantza Zuzendaritzak ezarritako moduan eta informatika jardunbideak erabiliz hartuko dira, legeetan edo arauetan finkatutako beharkizunak betez.

*2. atala.*– 1994ko apirilaren 20ko Aginduz onartutako inprimaki ereduak ezabatu egiten dira.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko ekainaren 20a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 3344

ORDEN de 20 de junio de 1996, del Consejero de Hacienda y Administración Pública, sobre modelos en período ejecutivo de recaudación.

En los procedimientos recaudatorios en período ejecutivo de los créditos y derechos de la Hacienda General del País Vasco se utilizan modelos de impresos aprobados por Orden de 20 de abril de 1994.

La progresiva implantación de procedimientos informáticos para la transmisión de los datos hace conveniente la sustitución de dichos modelos por documentos producidos por el sistema informático.

Por tanto, al amparo de la facultad establecida en la disposición adicional primera del Decreto 99/1982 de 19 de abril, sobre organización de la Tesorería General del País Vasco,

RESUELVO:

*Artículo 1.*– Los actos administrativos dentro del período ejecutivo de recaudación se dictarán en la forma y por los procedimientos informáticos que establezca la Dirección de Finanzas, cumpliendo los requisitos establecidos legal o reglamentariamente.

*Artículo 2.*– Se suprimen los modelos de impresos aprobados por Orden de 20 de abril de 1994.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de junio de 1996.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## MERKATARITZA, KONTSUMO ETA TURISMO SAILA

### 3345

AGINDUA, 1996ko uztailaren 4koa, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuarena, Merkataritza Indartzeko Plan Bereziak (PERCO) arautzen dituen uztailaren 2ko 166/1996 Dekretua garatzeko dena.

Merkataritza Indartzeko Plan Bereziak (PERCO) egiteko dirulaguntzen esparru orokorra ezartzen du uztailaren 2ko 166/1996 Dekretuak.

Dekretu horren 8. atalak xedatzen du eskabideak aurkeztea, epeak, aurkeztu beharreko agiriak, ebazpena emateko eskumena duen organoa, ordainketa egiteko epea, onuradunek aurkeztutako proiektuak eta obliga-

## DEPARTAMENTO DE COMERCIO, CONSUMO Y TURISMO

### 3345

ORDEN de 4 de julio de 1996, de la Consejera de Comercio, Consumo y Turismo, por la que se desarrolla el Decreto 166/1996, de 2 de julio, por el que se regula la ejecución de los Planes Especiales de Revitalización Comercial (PERCO).

El Decreto 166/1996, de 2 de julio, establece el marco general de las ayudas destinadas a la ejecución de los Planes Especiales de Revitalización Comercial, (PERCO).

El artículo 8 del mencionado Decreto dispone que, la presentación de solicitudes, los plazos para las mismas, la documentación a aportar, el órgano competente para su resolución, el plazo de realización del pago, así

zioak justifikatzeko moduak dekretu hori garatzeko xedapenetan ezarriko direla.

Ondorioz, aipatutako dekretu horren azken xedapenetatik lehenengoan finkatutako ahalmenaz baliatuz, hau

XEDATU DUT:

*1.atala.*– Xedea.

Merkataritza indartzeko plan baten xede izan diren udal mugarteetan EAEko toki entitateei dirulaguntzak ematearen araupena da agindu honen xedea.

Dirulaguntzaren xede diren jardunak 1997ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko dira.

*2. atala.*– Onuradunak.

EAEn kokaturik egon, hurrengo atalean xedatutakoa bete eta merkataritza indartzeko plan baten xede izan diren toki entitateak izan daitezke agindu honetan adierazitako ekonomi laguntzen onuradun.

*3. atala.*– Eskabideak.

1996ko urtean zehar uztailaren 2ko 166/1996 Dekretuan adierazitako dirulaguntzez baliatzeko eskabideak, zuzenean Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailaren dagozkion Lurralde Ordezkaritzen bitartez Merkataritzako Administrazio eta Politikarako Zuzendaritzara bidalitako eske-idazkiz egingo dira edo Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean adierazitako baliabideetako baten bitartez.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera 20 egunera bukatuko da eskabideak aurkezteko epea.

*4. atala.*– Agiriak.

Oro har, eskabide–orriarekin batera aurkeztu beharreko agiriak hauek dira:

a) Eskuduntzadun organoaren erabakiaren ziurtagiria, dirulaguntzara lotuz eta eskatutako diruzenbatekoa adieraziz.

b) Udaleko idazkariaren egiaztagiria, dirulaguntzaren xede diren jardunetarako, beste organismoei egindako laguntza-eskabideei buruzkoa.

c) Laguntza eskatzen denerako jardunaren azalpen txostena, gauzatze-gastuen zehaztutako aurrekontua, halaber, hori garatzeko erabiliko diren giza eta material baliabideak.

d) Udaleko idazkariaren egiaztagiriak, horietan adieraziko direla beste instituzio publiko edo pribatuei eskatutako eta beroriengandik jasotako beste laguntza guztien zenbatekoak.

e) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak edukitzea egiaztatzen duen agiri bidezko ziurtapena.

*5. atala.*– Esleipenerako eta zenbatekoak jartzeko irizpideak.

como la forma de justificación de los proyectos y las obligaciones de los beneficiarios, se establecerán en las disposiciones de desarrollo del presente Decreto.

En su virtud, en aplicación de la facultad establecida en la Disposición Final Primera del mencionado Decreto,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto.

La presente Orden tiene por objeto regular la concesión de ayudas económicas a las Entidades Locales de la C.A.P.V, cuyos términos municipales hayan sido objeto de un Plan de Revitalización Comercial.

Las actuaciones objeto de subvención habrán de realizarse con anterioridad al 31 de diciembre de 1997.

*Artículo 2.*– Beneficiarios.

Podrán resultar beneficiarias de la ayudas económicas previstas en la presente Orden, aquellas Entidades Locales ubicadas en la C.A.P.V. que, cumpliendo lo dispuesto en el artículo siguiente, hayan sido objeto de un Plan de Revitalización Comercial.

*Artículo 3.*– Solicitudes.

Las solicitudes para acogerse a las ayudas previstas en el Decreto 166/1996, de 2 de julio , durante el ejercicio de 1996, se formularán en instancia dirigida a la Dirección de Administración y Política Comercial, a través de las correspondientes Delegaciones Territoriales de Comercio, Consumo y Turismo, bien directamente o por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

El plazo de presentación de solicitudes finalizará a los 20 días de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Articulo 4.*– Documentación.

Con carácter general, la documentación que deberá acompañar a la instancia de solicitud será la siguiente:

a) Certificación del Acuerdo del órgano competente acogiéndose a la ayuda, con expresión de la cantidad solicitada.

b) Certificación del Secretario del Ayuntamiento sobre solicitudes de ayuda a otros organismos para las actuaciones objeto de subvención.

c) Memoria explicativa de la actuación para la que se solicita la ayuda, presupuesto detallado de los gastos de ejecución, así como los medios materiales y humanos afectos a su desarrollo.

d) Certificación del Secretario del Ayuntamiento en la que se manifiesten los importes de cualesquiera otras ayudas solicitadas o percibidas de otras Instituciones públicas o privadas.

e) Justificación documental actualizada de hallarse al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.

*Artículo 5.*– Criterios de adjudicación y cuantificación.

Laguntzak esleitzeko eta horien zenbatekoak jartzeko ondorengo lehentasun-irizpide ahauek hartuko dira kontuan:

– Udal mailako autofinantzazio portzentaia proiektuan (eskatutako dirulaguntzaren %a).

– Eskatutako proiektuan sektore pribatuak duen partehartze-maila.

– Udalaren, merkatarien elkarteen eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailaren ordezkariek hartutako akordioa/ak egotea horri laguntzeko proiektuari onarpena emanez.

– Aurkeztutako proiektuaren garrantzia baloratzea, proiektu horrek bere hiri-geografiako kokalekua ikusita, ekar dezakeen hiriaren erakarpen mailaren edo merkatal zentraltasunaren arabera.

*6. atala.*– Erabakia.

Uztailaren 2ko 166/1996 Dekretuaren 9. atalean araututako batzordeak proposatuta, Merkataritza Administrazio eta Politikarako zuzendariaren berariazko erabaki batez esleituko dira dirulaguntzak 1996ko urriaren 30a baino lehen.

Emango den erabakiak ez du agortuko administrazio bidea eta Merkataritza eta Kontsumo sailburordearen aurrean errekurtso arrunta aurkeztu ahal izango da.

Erabakia jakinarazi gabe hori emateko aurrikusi den epea bukatu ondoren, eskatutako laguntza ukatu egin dela ulertu beharko da.

*7. atala.*– Bideratzea.

Uztailaren 2ko 166/1996 Dekretuaren 7. atalean xedatutakoaren arabera, emandako dirulaguntza onuradun erakundearekin hitzarmen bat eginez bideratuko da, proiektuaren alderdi nabarmenenak jasoko direla hitzarmen horretan.

Partehartzaileek izenpetzen duten egunean hartuko du indarra hitzarmenak eta bere indarraldia 1996ko jardunaldira mugatuko da.

*8. atala.*– Ordaintzea.

Eskatu edo lor daitezkeen besteekin bateragarriak diren laguntzak ondorengo ordainketa-era honetan ordainduko dira:

%50a hitzarmena izenpetzekoan eta gainerako %50a, onartutako proiektua edo proiektuak gauzatu direla justifikatu ondoren, hurrengo atalean adierazitako moduetan.

*9. atala.*– Justifikazioa.

1.– Hitzarmenak aipatzen duen/dituen proiektua edo proiektuak gauzatzeko epemuga-eguna dagokio/en erabakian ebatziko da eta ebazpen hori, proiektuaren gauzatze-gastuen egiaztagiriez egiaztatuko beharko da. Horretarako, dagokion udal edo erakundeak, gastu horiei dagozkien faktura edo ordainketa-agiriak aurkeztuko ditu.

– Aurkeztutako proiektuaren edo proiektuen egiaztapenean, aurkeztu zen eta dirulaguntza emateko kontuan hartu zen aurrekontuarekiko %25ekoa baino txi-

Para la adjudicación de las ayudas y la cuantificación de éstas se tendrán en cuenta los siguientes criterios de preferencia:

– Porcentaje de autofinanciación municipal en el proyecto (% de subvención solicitada).

– Nivel de participación del sector privado en el proyecto solicitado.

– Existencia de acuerdo/s adoptado/s por representantes del Ayuntamiento, de las Asociaciones de comerciantes, y del Departamento de Comercio del Gobierno Vasco, dando su aprobación al proyecto presentado para su subvención.

– Valorar la trascendencia del proyecto presentado en función del incremento que el mismo suponga para el grado de atractivo o centralidad comercial de la ciudad, a la vista de su ubicación geográfica urbana.

*Artículo 6.*– Resolución.

Las subvenciones se adjudicarán por resolución expresa del Director de Administración y Política Comercial a propuesta de la Comisión regulada en el artículo 9 del Decreto 166/1996 de 2 de julio, con anterioridad al 30 de octubre de 1996.

La Resolución que recaiga no agotará la vía administrativa, pudiendo interponerse recurso ordinario ante la Viceconsejera de Comercio y Consumo.

Transcurrido el plazo previsto para dictar la resolución sin que ésta se haya notificado, deberá entenderse denegada la ayuda solicitada.

*Artículo 7.*– Instrumentación.

Con arreglo a lo dispuesto en el art. 7 del Decreto 166/1996, de 2 de julio, la subvención concedida se instrumentará a través de un Convenio con la Institución beneficiaria, en el que se recogerán los aspectos más relevantes del proyecto.

El Convenio entrará en vigor el día de su firma por las partes intervinientes y su vigencia se circunscribirá al ejercicio de 1996.

*Artículo 8.*– Pago.

Las Ayudas, que serán compatibles con otras que se pudieran solicitar y obtener, se abonarán mediante la siguiente fórmula de abono:

Un 50 % a la firma del Convenio, y el restante 50 %, previa justificación de la realización del proyecto o los proyectos aprobados en los términos de la resolución concedente, previstos en el artículo siguiente.

*Artículo 9.*– Justificación.

1.– La fecha límite de ejecución del proyecto o los proyectos a los que se refiera el Convenio se determinará en la Resolución correspondiente, debiendo acreditarse esta circunstancia mediante la oportuna documentación acreditativa de los gastos de realización del proyecto. Para ello, el Ayuntamiento o Entidad correspondiente presentará las facturas o justificantes de pago correspondientes a los mismos.

– Si en la justificación del proyecto o proyectos presentados se produjera una desviación inferior al 25 %, respecto del presupuesto presentado y tenido en cuenta

kiagoko aldea gertatzen bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren gutxitze bat egingo da; horrela, benetan gastatu den zenbatekoari, dirulaguntza kalkulatzeko egin zen aurrekontuko zenbatekoari aplikatu zitzaion portzentaia bera aplikatuko zaio.

– %25a baino gehiagoko alde batek dirulaguntzarako eskubidea galtzea ekarriko du, ekonomi laguntza eman zitzaieneko helburu guztiak bete direla egiaztatzen denean salbu. Kasu horretan, dirulaguntzaren zenbatekoa aurreko idazatian adierazitako eran gutxituko da eta interesatuari jakinaraziko zaio jasotako gainetikako zenbatekoak itzuli beharra daukala hilabeteko epe baten barruan jakinarapena egiten denetik aurrera kontatuko dela epe hori.

*10. atala.–* Obligazioak.

Agindu honetan finkatutako laguntzak jaso dituzten toki mailako entitateek, hiruhileka, garatzen ari diren jardunei buruzko txostena bidali beharko diote Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saileko Merkataritzako Administrazio eta Politikarako Zuzendaritzari.

Halaber, dirulaguntza jaso duten jardun horietan, dibulgazioa, difusioa edo, hala bada, publizitatea dakartenean, berariaz adierazi beharko dute Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailaren sustapena.

*11. atala.–* Kontrola.

Merkataritzako Administrazio eta Politikarako Zuzendaritzak bidezkoa iruditzen zaizkion ziurtapenak egin ahal izango ditu emandako ekonomi laguntzari buruz eta laguntza hori justifikatzeko diren agiri guztietarako sarrera izango du.

Oro har, uztailaren 2ko 166/1996 Dekretuaren 12. atalean xedatutakoa aplikatuz, emandako dirulaguntzak kentzea ekarriko du agindu honetan eskatzen diren betekizunetakoren bat ez betetzeak.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko uztailaren 4a.

Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburua,
ROSA DÍEZ GONZÁLEZ.

para la concesión de la subvención, se procederá a una minoración de la cuantía de la subvención concedida; de tal manera que se aplicará a la cantidad realmente gastada el mismo porcentaje que se aplicó a la cantidad presupuestada para el cálculo de la subvención.

– Una desviación igual o superior al 25% dará lugar a la pérdida del derecho a la subvención, excepto en el caso de que se justifique que se han cumplido todos los objetivos para los cuales se concedió la ayuda económica. En este segundo supuesto, se procederá a la minoración de la cuantía de la subvención en la forma prevista en el párrafo anterior, comunicando a la interesada la obligación de devolver las cantidades percibidas en exceso en el plazo de un mes a contar desde la notificación.

*Artículo 10.–* Obligaciones.

Las Entidades Locales que hayan recibido ayudas de las establecidas en esta Orden, deberán remitir, trimestralmente, a la Dirección de Administración y Política Comercial del Departamento de Comercio, Consumo y Turismo, informe relativo a las actuaciones que se vayan desarrollando.

Asimismo, deberán hacer constar expresamente el patrocinio del Departamento de Comercio, Consumo y Turismo del Gobierno Vasco, en todas aquellas actuaciones subvencionadas que conlleven la divulgación, difusión o en su caso, publicidad de las mismas.

*Artículo 11.–* Control.

La Dirección de Administración y Política Comercial podrá realizar las comprobaciones que estime oportunas respecto a la ayuda económica concedida y tendrá acceso a toda la documentación justificativa de la misma.

En general, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 12 del Decreto 166/1996, de 2 de julio, el incumplimiento de algunos de los requisitos exigidos en la presente Orden, dará lugar a la retirada de las subvenciones concedidas.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de julio de 1996.

La Consejera de Comercio, Consumo y Turismo,
ROSA DÍEZ GONZÁLEZ.